

# JEAN BARBIER

Aurten bete dira ehun urte Jean Barbier zenaren sortzetik. Donibane-Garazin jaioa zen. Euskal literaturaren alorrean lan ederrik egin zuen: poesia, ipuiak, antzerkiak, saiaerak eta eleberri bat ere idatzi zuen. Bere garaian, aldizkarietan anitz izkribatu zuen eta adiskide andana batekin «Gure Herria» aldizkariaren sortzaileetakoa izan zen. Bere lan asko aldizkari honetan argitaratu ziren.

Ifar Euskal Herrian oso zaleak dira kanta bildumen liburu eta liburukak maiz argitaratzen eta horietan nekez faltatuko da Jean Barbierren kantaren bat, herriz herri bere zenbait kanta arrunt zabalduak bai dira. Gure artean, Mikel Laboa kantari hasi zen garaian, Barbierren «Gure amatxo» izan zuen hastapenetako bat eta oraindik gure egunotan nork ez du ezagutzen plazetan edo radioz entzuna?:

*Oilarra kukurruka etxean da ari,  
Jadanikan Amatxo otoitzez Jaunari;  
Bi eskuak ikaran, so kurutzeari:  
Jaunak beha diezon egun berriari.*

Aspalditik entzun ez dudana zera da, Irrintzina izenekoa, 1898an Senperen lehen saria irabazi zuen hura, musika polit bati erantsita hemengo koruak inoiz kantatzen zutenna, hain eztsu osatutako lehen bertsoarekin:

*Gau eder batek ninduen  
hatzeman mendi gainetan.  
Iguzkia aintzinean  
emeki etzan zitzautan.  
Azken abereak etxera  
zoazin ene oinetan,  
bazter guziak zituztela  
inharrosten marrumetan.*

Bi kanta horien hasierekin jabetuko da irakurlea J. Barbierren nor-tasunez. Piarres Lafitte dugu bere bizitza onduen aztertu duena eta bere esanen hildoz adiaraziko dugu, laburki, bere bizitzaren berria. Sorterrian, Hazparnen, Larresoron, Baionan eta Tolosan egin zituen eskolak. Teologia dotorgoa bildu-eta, Larresoroko Seminario ttipian erakas-le sartu zen. Orotan denek haren lana ezinago estimatua zen. 1913an Senpereko erretorgoa hartzen du, artoski, kartsuki, maiteki gidatzen duela. 1931ko urrian hil zen.

Euskalduna baitzen errotik, bere aita-amen mintzairari funtsez hel-dua zegoen. Baxenabartarra ikasia zuen bere etxekoekin, baina Lapur-din egotearen bortxaz eta lapurtarren liburuak irakurtuaz, mintzaira le-ratu zitzaion «nafar-lapurtar» esaten diogun hizkuntzaruntz.

Haren lumatik atera diren liburuak izan dira: *Nere kantak* (1910), *Ama Birjina Lurden* (1920), *Supazter xokoan* (1926), *Ixtorio-mixterio* (1930), *Légendes du Pays Basque d'après la tradition* (1931). Beste lan asko aldizkarietan argitaratu zituen: *Kauserak edo Kruxpetak* izeneko antzerkia (1924), *Piarres* eleberria (1926-1929); bi zatitan, eta abar.

Lafittek dionez, bertso lanak irtetzen zaizkion bezala jartzen zituen, inolazko konponketarik gabe. Behar bada hobekak izango ziren begira-mendu gehiagoz landu balitu, baina dauden bezala, herritasunez beterik daude, bizitasun berezia dariela. Eta honek ere bere alde onak ditu.

1925ean, *Trois légendes su Axular* bilketa lana agertu zuen «Gure Herria» aldizkarian, Geroago, bertan oinnarriturik edo, Axularren itza-la izeneko bertsoak egin zituen. Urte batzuk dira J. M. Barandiaranek ere bildu eta aztertu zituela honelako kondairak, Axularren itzalari bu-ruz. Barbierren poemaren bi bertso soilik emango ditugu, itzal merezi-garriaren ohorez:

*Zuhaitz handiak, lore ttikiak  
berekin dakar itzala,  
nahi bezenbat argitugatik,  
gizon orok hala hala!  
Itzalik gabe, aditua naiz,  
Aingeruak ditezkelak.  
Huna non dioten Axularrez:  
Itzalik gabe bizi zela.  
«Itzalik» gabe, hura bezala,  
nahi girea, anaiak?  
Gure axular bezenbat garbi  
nahi girea guziak!*

*Galtzagorri, harek bezala,  
utzi erdaldunkeriak,  
aztaparretan utz debruari  
beraren kaskoinkeriak!*

Literaturan biltzaile eta sortzaile zenez, aztertzailetarako ere dohain bereziak agertu zituen; honen ondoriozkoak ditu egin zituen saiaera laburrak hauen artean, heriotzari buruzkoa, bertsoz ere jarria; azkenaldi hontan euskaraz eta erdaraz gai hau erabili dutenek aprobetxatu gabea.

Bere paperen artean, P. Lafittek, argitaratu gabeko lan asko aurkituak ditu, batez ere bertsoak. Baina argitara gabeko hauen artetik berezietako bat buhamien (ijitoen) bizitza eta ohiturazko lan eder bat, 1971. urtean Lafitte berak argitaratua *Antxitxarburu-ko buhamiak* izenez. 1895ean idatzia zen. Behar bada gai berarekin frantsesez beste lan bat egina zuelako edo egiteko asmoa zuelako utzi zezakean argitaratu gabe, zeren 1904-1905 urteetan *Les Bohémiens d'Antchitcharburu* bere irakurtzaileei eskaini bai zien.

Lerro hautatik bijoaz gure laudorioak J. Barbier zenari bere ehungarren urteburu honetan.

J. S. M.

